LEIRE BILBAO

scanner



Scanner

Leire Bilbao

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3,54 €.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2011 Leire Bilbao
© edizio honena: Susa

Lehen edizioa paperean: 2011ko iraila
Edizio hau: 2011ko iraila

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

poesia gosea da

AMAZ ERDITU NAIZ

1977ko URRIKO GAU BAT

Urriko gau batez aita eta ama euren logelan,
oraindik ez nire ez beste inoren
aita eta ama ez direnean.

Gizonak jertsea erantzi du:
aulki gainean utziz burua kendu dioten hilotza.
Andreak armairuan sartu ditu galtzak eta alkandora:
pertxatik zintzilik beste emakume urkatu bat.

Bietako batek ere ez dio komodako ispiluari
begiratu.
Maindire artera sartu dira
bakoitza bere ohe ertzetik:
mugaren alde biak eta aduana.

Hezetasunak hartutako pareta zatia
irudimenez margotzen ahalegindu da andrea.
Hotzak ditu oinak. Kuzkurtu egin da
gizonaren sabelpera, beroa da haren aho-lurruna.

Argiak itzalita izarak ez dira zuriak;

gorputzak bai, garbiagoak dira.
Andreak eguna du nahiago.
Gizonak gaua.

Urriko gau hartan aita eta ama
oraindik ez nire ez beste inoren
aita eta ama ez direnean
desiratzera behartuta ezkon-ohean
nor bere bazterrean
loak hartzeko zain.

TERRA NOVA

Nire bizitzan oso goiz izan zen berandu.
MARGUERITE DURAS

Berandu jaio zinen
esaten zidan amak.

Bi astez berandutu nintzen
munduari beldurrez.
Beste bi astez izan nintzen
arrain gorri amaren urontzian.

Hiru kilo seiehun
argitu zion irrati-telefonoz aitari.

Ipurdiko bat eta
negar egin nuen aitarentzat.

Nire alaba!
Nire alaba!

entzun zen brankan.
Ondo gabiltza arrantzan
cambio y corto.

Gau hartako marinelen edariak
aitaren kontura izan ziren.
Gau hartan aitak pozik egin zuen lo.

Sei hilabetera ezagutuko zuen
amaren amuko arraina.

Bere besoetan hartu nindenean
lehen aldiz igeri egin nuen itsasoan.

Badakit ez zela nire negarra
gazitasun busti hura.

AITA

Umetan gorroto nuen etxera etortzen zen gizon hura:
bizarra egin gabe, *Old Spice* usainaz.

Harrian husten zuen fardela,
bidean uzten odol eta kresal tantak,
eta nire aurrean arrainak
begiak zabal, bata bestearen gainean hilda.

Dutxa hartu eta amarekin oheratzen zen.
Kiratsik gabe ere gorroto nuen
umetan etxera etortzen zen gizon hura.

Bere musuek ziztatu egiten zidaten azala.
Eskerrak etorri ahala joaten zen,
eskerrak Gabonetan ere ikusten ez nuen.

Arrainei begiak kendu eta
kaniketan jolasten nintzen pasilloan.

Umetan gorroto nuen gizonak

etxean aingura bota zuen egunean
balantzaka hasi ziren habeak.
Olatuekin bazkaldu genuen,
negar egin zuen ahizpa gazteak.

Itsasoa utzi zuen gizonari
ez zitzaion itsaso usaina joaten.

Orain, arrain-hezurrezko bizarra
laztantzen diodanean
inoiz gorroto izan nuela akordatzen naiz.

UMETAKO PORTUA

Amaren eskutik joaten ginen portura,
hilabeteetan izan ez genuen aitaren bila.

Garrasi egiten zigun kaiak,
egurrezko kaxek langileen eskuetan nola,
fenwickek eta izotz makinak ere garrasi.
Itsasoari eutsi nahi zioten atzamarrak ziren noraiak,
beti zabalik dagoen ate bat zen moila.

Arrain buruak lurrean, kalatxorien ahoan.
Ahizpa gaztea aitaren hanketan.
Ni hor nonbait geratzen nintzen
ezkatak biltzen, gasoil usaina dastatzen.

Traba egiten nuen:
portuko nasan, autoan etxeranzkoan,
beti erdian izkinei beldur.

Arrainak bezala betazalik gabe ni.

Aitaren bila joateari utzi genion halako batean

umeen orduak ez direlako itsasoarenak,
lotan geundela zabaltzen zelako etxeko atea,
bera gabe bizitzera ohitu ginelako.

OINEZ IRAKATSI DIZUN HORI

hotza da familia inoiz
kalean ahaztu oinetakoa da familia inoiz
arrotza
oinutsik ibili eta berriz janztean
zure oinetara egina dagoela ohartzen zarena

ibiltzeko da familia
kalean ahaztu oinetakoa da
larruzkoa zikindua emana
oinez irakatsi dizun hori da familia
lurrarekin lotzen zaituena
zulatzean aspertzean
oinetakoak bezain erraz aldatu ezin duzuna

espaloi ertzean dago familia
kalean ahaztu oinetakoa da
leihotik botatako haserrea da
eskailera jaitsi
eskuetan hartu eta
berriz janzteko beharra duzuna

ETXEKO DRAGOIA

Amak dena garbitzen du
jasoa zaindua ordenatua behar da etxea
trapuak ateratzen zaizkio Amari
eskuetatik besoetatik omoplatoetatik
hegan egiten du
dragoi zaindari batek bezala bere gazteluan

Amak keinu batekin
eltzeak jartzen ditu sutan
behi okela egosten du
hegalak zabaltzen ditu kumeok batzeko

Amak dena dauka prest
Ama beti dago prest
Amak dena egiten du ondoen
hautsa astintzen du edonoiz
sua ateratzen da Amaren ahotik
orro egiten du bakea agindu behar denean

Amak dena garbitzen du
jasoa zaindua ordenatua behar da etxea

Ama beti dago hor
Ama beti dago hemen

Amak ez du etxean arrotzik nahi
Amak ez du zomorrorik inurririk puntu beltzik nahi

Amak sua eragin dezake
ahoarekin begiekin esku biekin

egun batean Amak
Aita garbitu
eta atseden unerik hartu gabe
arrautza zaharra erruten
eseriko da

DESIOA

Inoiz zabaldu al duzu zure ama
erditik? Marrubi bat bezala?

Gutxitan gara desio duguna.

Amak ispiluan haztatzen du
bere buztinezko gorputz zimurtua.
Atzamar bustiekin zeharkatzen ditu atalak:
desertua, egarria, arrakalak, zementua.
Ohartu da berandu dela,
ur tantez alferrik moldatuko duela.

Ileekin batera katigatu zaizkio desioak orrazian.
Sorbaldak amildegi ertzean ditu,
suge bat bizkarrean,
ibaiak izterretan gora eta behera,
harrien pisua ahoan.
Ispiluak gero eta arinago irabazten dio pultsua.

Alabaren gainean pausatzen ditu begiak
isla hobe baten bila. Eta hala ere
desertua, egarria, arrakalak, zementua
sentitzen du
alaba ere bere itxura hartzen ari dela barrutik
sentitzen du
marrubiei bezala bihotza falta zaiola
sentitzen du
ez dela berak desio zuena.

AMESTU NAHI ZINTUZKET

Ama, gaztetu nahi zintuzket
neu ere ume izan nadin.
Haizeak ditut saihets artean
ezin dute ihes egin.

Ama, ilea luzatu nahi nizuke
neuri ere orraz diezadazun,
min egiten zenidan arren
amatasunezko amorru harekin.

Ama, amestu nahi zintuzket
hogei urterekin beti,
zelai batean dantzan
kristalezko kanpaiak hautsiz.

Ama, asmatu nahi zintuzket
sabel azpiko orbainik gabe,
ahantz dezazun nondik atera nintzen
leun, irribarrez; seme-alabarik gabe.

Ama, askatu nahi zintuzket
libre izan nadin neu ere.

BIHAR EZ DAKIT ZER EZ DUDAN JAKINGO

Ama hil zaigu lanak itota.
J.A. Artze

Gure amak ez daki nor den Walt Whitman
kapitain baten hilotza maitatu zuen arren.
Ez du Victor Hugo inoiz irakurri,
Jean Valjean, Fantine eta Monsieur Madeleine
ametsetan agertu izan zaizkion arren.
Ez daki nor diren Faulkner, Jelinek edo Carver
nahiz eta maleta zahar batean hilobiratu zituen
denei hautsa maitekiro kendu ostean.

Gure ama pianotzat hartu izan dute
inoiz Bachek, Mozartek, Ellingtonek.
Haren begi elurtuetan odol tanta bat da
Malevitxen etxe gorria.
Gerriko minez dabil aspaldian
eta hala ere etxeko lanak amaitu eta

kalera ateratzen da egunero izebarekin
eguzkia, hotza zein beroa, hartzera.

Gure amak, paperezko deiak egiten
etxean utzi duen alabari,
bizitza zertarako den jakitera iritsi gabe
hilko direla biak ala biak
azaltzen jakin nahi luke.

AUTOPSIA

Ez naiz ama hiltzera etorri
arrastoei segika atera naiz.
Ez dut topatu espero nuen piztia
arma homizida.
Lurrean zurbil
pultsua hartu diot
no, no, no, no, no
ez naiz ni izan.

Ez naiz ama hiltzera etorri
bere bila atera naiz.
Aiztoa zorrotz
alga eta ezkatez estalita
denbora darama hotz.
Inork ez du gorpua altxatu nahi?

Ez naiz ama hiltzera etorri
ez dut azala trukatu
delitu tipifikatuen beldur naiz.

Desioak arriskatu ditut
don’t think twice
kristalak jan
espero ez nuen piztia topatu.

Ez naiz ama hiltzera etorri
bidea desegin dut.
Leihotik bere hilotza begietsi
etxeko ate guztiak itxi
hilda dagoela oihukatu
baina ez naiz ni izan.

PAPEREZKO DEIAK

NI EZ NAIZ LILI BRIK

Ni ez naiz Lili Brik
ez diot Stalini gutunik idatziko
Maiakovskiren poesia goratzen.
Ni ez naiz Anna Akhmatova
ez ditut poemak erreko semea kartzelatik
ateratzearren.
Ez naiz Simone de Beauvoir
bainugelako ispiluan bere gorputz biluzia
argazkiratzen.
Ez naiz Rosario Castellanos
indigenen ahotsa goratzen.
Ez naiz Irene Nemirovski
Auschwitzen 1942an.
Ez naiz...

Ez naiz Frida Kahloren bizkarrezurra.
Ez naiz Francesca Woodmanen argazki hautsia.
Ez naiz Louise Bourgeoisen armiarma.
Ez dakit Marguerite Duras bezala *suntsitu* esaten.

Nire iraultzak nire izena darama

XXI. mendeko gaitzak kutsatuta idazten dut hauxe da
neure buruaren kontra dudan
erresistentzia ekintza bakarra.

POETA HILAK

Deia egin dut, baina ez dago
erantzungo duen inor.
José Emilio Pacheco

Gaur Blanca Varela hil dela irakurri dut
egunkarian.
Apalera joan naiz haren poema liburuaren bila;
Ana Akhmatova eta Marina Tsvetaieva aurkitu ditut
bere gainean, hautsez beteta kantuan.
Sylvia Plath zeukaten labetik begira,
Philip Larkin leiho altuetatik.

Nire idazmahaia poeta hilez beteta dago
esan diot Wislawa Szymborskari;
eta Mahmud Darwish seinalatu dit, hilobia heze,
Dylan Thomasen gainean zetzala.

Orduan, burua jiratu eta balantzea koadratzen
aurkitu dut Gabriel Aresti,

atalasean gogoetan Rosario Castellanos.

...eta telefonoz deitu dizuet
bizirik zaudetela ziurtatzeko bakarrik.

AUTO-ZENTSURA

> Emakume idazle baten lehen eginbeharra
> etxeko aingerua hiltzea da.
>
> VIRGINIA WOOLF

nire gela propioa izan nahi dut, Woolf
otso izan nahi dut, Woolf
nekeza da neska otzana izatea
letaginak eta azazkalak limatzen ditut goizero
behatzoskolak gorriz pintatzen
ez dut ulu gehiago irentsi nahi, Woolf
balkoietatik sartu nahi dut gauetan
eta nirea ez den odolez ase
eskuaren ganbilaz muturrak garbitu
ilean belar zatiak izan
aspertu naiz nire larrua jotzeaz, Woolf
listu eta izerdi berberaz
esku ahurrak estutzen ditut
baina ezin dut aingerurik hil, Woolf
ezin ez denik hil

behin ibaian itotzeko zorian utzi nuen otsokumeari ahoz aho arnasa eman nahi diot, Woolf beranduegi izan baino lehen

MEMORIA

Nire izena ahaztu nuen lehendabizi.
Eskuak zertarako nituen ahaztu nuen gero,
hitzak zertarako diren
minak zer esan nahi duen.

Nire izena ahaztu nuen lehendabizi.
Nigandik espero zituzten esperantza guztiak
ahantzi nituen gero,
zeini egin behar nion irribarre,
zeini eskua oratu.

Nire izena ahaztu nuenetik
beste ezertaz ez naiz oroitzen.

Ordutik aurrera sortzen dut.

GALDERA BAT DA GORPUTZA

GERO BERANDU IZAN LITEKE

Hankak zabaldu ditut ginekologoaren aurrean
horma zurian begiak zuri
pareta zati leun eta apaingabe baten bila nabil
garbia argia hutsa.

Zenbat urte ditudan galdetu dit
atzamarra nire baginan.
Hogeita hamar.
«Ez duzu umerik ekarri nahi?
Gero berandu izan liteke».

Isilunean armiarma bat zintzilikatu da horman
ni bezala hanka-zabalik.
Diost mundura umeak ekartzeko etorri naizela
nire arbaso eta ondorengoak bezala
hanka-zabalik amaituko dudala
hanka-zabalik jaio ninduten bezala
hanka-zabalik bizi beharko dudala.

Ziztada bat sentitu dut baginan.

Segidan esku bat ezkerreko izterrean.
Janzteko agindu dit kloroformo ahotsez.

Oinak bata bestearen kontra estutu
eta etzanda jarraitu dut.
Izara zuriak estaltzen duen gorpu bat
eta armiarma geratu gara gelan:
zuloa eta sarea
besterik ez dugula.

Atea zabaldu da zakar.
Bakeroak bilatu ditut
estali nahi azkarregi batekin.

Armiarma ezkutatu egin da.

ESKU BAT

esku bat
sabelpea auskultatzen
atzamar bat
hankartetik gora

umea egin dut
bururik
gorputzik
asmorik
gabe

HODEIA

Zauria zabalik dago
plazer guztiek egiten dute min

kukurtuta berriz ere zure aurrean
masailak gorritu zaizkit
hodei bat egin didazu ahoan

ANIMALIA

Esna dago animalia
zerbaiten zain burua zut
ozeano azido bana begietan.
Azazkalak moztu dizkiot
hotz dauka arnasa
ez du ispiluan begiratu beharrik
ni naizela jakiteko.

ZATOZ

Animalia bezatua, zatoz
nire izter artera haginka.
Ez naiz beldur
zure begi hotzena.

Korronte elektriko bat
gorputzak erdibitzen
urtegia zabaldu da
ura naiz zure atzamarretan.

Emango dizut nire bizkarreko arkua
lur zati bat, ezpainen zauria
animalia bezatua, zatoz
nire izter artera haginka.
Zu basati bihurtzeko arriskua
onartua dut.

BEHORRA

Zure izerdia daramat ahoan
hortz artean
lur lehorra eta belarra.

Dakidan egoismorik zintzoenean diotsut
behor bat izan nahi dut zelaian
zure askatasuna jaten.

IZERDIAREN PAISAIA

Ura moztu didate etxean
eta egarri zaitut.

Edaten eman nahi diot
nire barruko putzuari,
egia hau laztantzeari utzi.

Errekak entzuten ditut
hormetan bideak zabaltzen,
lurreko egurra hausten, puzten.

Izerdiaren paisaia da gurea:
beroaren neguarena
hotzaren udarena
uneoro euritan dauden leihoena.

Izotz guztiek nahi dute ur izan,
ur guztiek lurrun.

Memoria du egarri honek,
urak bezala
beti asmatzen du nola ihes egin.

KAIOLAN

Zure bular hezurren barruan
txori bat dabil
zure bular hezurren barruan
nire burua dago
zure bular gainean lo hartzen duen txoria
izan nahi dut

GALDERA BAT DA NIRE GORPUTZA

nire gorputza galdera ikurra da
bere puntuaren bila
plastikoa bezala urtzen da
nahiz eta antikonjelanteak izan biriketan
suge bat darama bizkarrean
zigilu bat ipurmasailean
dena ezkutatzen du
kezko azalean
zabalik uzten dut batzuetan
armairuak bezala
barrura begiratu beharrik ez izateko
oihu egiten duenean
saihestu egiten dut bestetan
aulki batean aparkatuta
larregi ahazten naiz berataz
baina atzetik datorkit nahitaez
galdera ikurra legez
noiznahi abandonatuko duen esaldi baten ostean

AMARAUNA

Ez ni ulertzen saiatu
ez nire haserrea edan.

Egizu nire ondoan lo
estutu egidazu eskua.

Emakume gozo bat naiz
azal guria azal zuria
zainak ikusten zaizkit.

Erabili eta ez naiz haserretuko
erabili eta ez naiz poztuko
erabili eta ahantz nazazu logeletan.

Ez ni sarean lotu
utz nazazu zuloan.

Ezaba nazazu izaretatik
zure eskuetatik
beste inor ukitu aurretik.

Armiarmak beti gaude hanka-zabalik.

ANIMALIAK OHEAN

elurra ari du
larrua jotzen dizudan bitartean
«ez dago maitasun aseptikorik» diotsut
leihoak izerdituta
odol tantak izaretan

gu: bi elefante igerian
bero urdina
gaur zoriona ez dator berandu
katuak bezala miazkatzen dizkizut zauriak
animalia guztiak naiz zugan

lepoa ohe ertzetik kanpo
hilko zaitut une betez
isiltasuna musukatuko dizut
mudatuko naiz behin eta berriz

hondartutako balea zara orain
hezurrak agerian
eta ni zakur bat
zure eskeletoa berriz itsasoratu nahian
alferrik dabilena

MAITALE IMAJINARIOA

maitale imajinario bat daukat
hozka egiten diot titi puntetan egiazkoa den jakiteko
haren ileak daramatzat hortz artean

bakarrik nagoenean bakarrik besarkatzen nau
orduan bortizki atsegina da nirekin
badaki nire lasaitasuna aztoratzen

Auschwitz-eko dutxetan sartzen nau berarekin jo
ostean
Doctor No bezain krudela da nahi duenean
larriegi maite dut odola mehetzen didan arren

batzuetan burkoa ureztatzen aurkitzen dut
bestetan ehorzlea da ni izaretan biltzen
jaio berrien ezpainak ditu baina ez dit hitz egiten

maitale imajinario bat daukat
uhalik gabe daramat
nire gainean nire menean
maitale imajinarioak berak nauka
ahoan esku batekin arnasa itotzen

KRISTALEN GAUA

ez dizut ezer esango zure ohetik jaikitzen
naizenean
lurretik jasotzen ditut harriak arropen ordez
hitzen hotza estaltzeko
gorri ditut masailak eta izterrak
mingaina pasa dizudan lurmutur guztiak gorri zuk
horrela ulertzen nauzu
dantzari bat zure sabelean
laku artifizial baten gainean oinak izozten zaizkit
hausteko beldur naiz orduan
geruzaren bestaldean zu
nire zilbor hestetik tira eginez ez itotzeko
hau ez da kristalen gaua
giharrak beira bihurtzen zaizkit
libra nadin zu epaitzetik
atarian dudan zakurrak zaunka egiten dizu
zure besoetan jolastu ez den guztiagatik

bueltatzen dizkizut mingaina azala arnasa
eraman itzazu errekak hodeiak galderak

ez dizut ezer esango
ez maite ez agur ez itxoidazu esna
ez zaitut jaikiko nire ohe azpitik
ez zureak hainbeste baina
niri ere desioak gaiztotu zaizkit

ZAKURRAK LABADORAN

LABADORA

Zu hil zinen egunean labadora bat erosi nuen.
Atexka zabaltzean
oinak busti zitzaizkidan,
ezustean harrapatu ninduen urak.
Erreka urdinak ditut bularrean, badakizu,
itsasoak gainezka egiten dit ahotik.
Labadoraren eskotillatik itsasoari begira izan zen,
bat-batean xaboi eta trapu artean
olatuak eraman zintuela jakin nuen,
garbigailu barrura atzamarrak sartu
eta zure bila aritu nintzen alferrik.
Ahotik egin nuen negar
belarrietatik zilborretik
eskuetatik azaletik,
eta orain hildako ibaiak ditut zainetan,
eta labadora berri bat.

KALEKO ZAKURRA

nirea bezain inorena naiz
bere itzala jaten saiatzen den
zakurrari bezala gertatzen zait
urduri jartzen naute maitasun abestiek
badiotsut: irrati dialen zapping-ean
entrenatuta daude nire atzamarrak
orrazi izateari uzten diotenean

berez beleak ditut ilean
batzuetan eskutan hartzen ditut
hegan joaten ez direnean
gertura zakurraren itzala bezala
horregatik galdu nuen aspaldi
galtzearen sentsazioa

mesedez konta iezazkidazu
ahaztu ditzakedan gauzak
poltsa zulatuetatik ihes egiten dutenak
aspaldian pertxak sobratzen zaizkit armairuan
inork ez dit ezkaratzetik
bainugelara dei egiten

aulki hutsez inguratua nago

nirea bezain inorena naiz
kaleko zakurren gisa
itxurak egiten jarrai dezaket
neure buruarekin orain bezala
ohearen beste aldean jarriko naiz adibidez
alde batera begiratzen dudanean
ni baino falta ez nadin

BELARRA

belarra atera zaio etxeko sofari
egarri naizenean ihintza edaten dut
zerua desertu urdin bat da nire gainean
eta ez dut leiho beharrik
portuak lehortzen doazela ikusteko

farolez eginiko mendi bat daukat aurrean
asfaltoa dut oinetako
olatu beltz estatiko bihurgunez justifikatua

espaloietako losen azpian
aspaldian ez dut izaki bizidunik aurkitzen

gero eta putzu gutxiago daude gure herrian
denbora da ez ditudala oinak uretan busti

belarra atera zaio etxeko sofari
haren gainean luze botata egoteagatik
bueltak ematen ditut nire inguruan
fetuak umetokian bezala neure buruari

zorionekoak

zein mundutan bizi garen zehazki ez dakigunok

EDERMINA

Maite dut balkoietako mihiseen azpitik hegan
egitea,
eskuekin sagarrak erdibitzen dituen jendea,
harrien pentsaera,
eta hala ere minaren beharra dut zoriontsu izateko.

Minaren beharra dut,
egurrezkoa naizelako
herdoilezkoa hautsezkoa harizkoa.

Badakit neure burua samurki suntsitzen.
Nola egiten den ikasi dut jendeari begira.

Zakarki egiten dutenak errefusatzen ditugu,
egin samurki esaten diegu samurki.

Leungarri, lixiba usain eta ia markarik gabeko
heriotza publiko bat gehiago da hau.
Ez du molestatzen
norberari baino.

Barrutik jaten da barrua.

Eta hala ere maite dut leiho zabalduak besarkatzea,
begiekin irribarre egiten duen jendea,
polenaren dantza.
Mina irentsi ostean bakarrik
dakit zorionekoa naizena.

ESKUAK HASERRE

Zerbait berria aukeratu dut,
alferrik ez sufritzea.
ADRIENNE RICH

Okaranak janez hitz egin dugu
liburuez, eguraldiaz eta nork bere buruaz.

Esan didazu: haserre dituzula eskuak,
ezagutzen dituzun tanatorio guztiek
jatetxe bat dutela ondoan,
telefonoak bete duela zure lekua gurasoen etxean.
Ez dakit zehatz zer esan dizudan nik:
gogoan zaituztela nire eskuek
maite dudala irribarre erraza duen jendea,
logela huts bat naizela amarenean.

Esan didazu: zure erdiak lo egin nahi duela
eta besteak hozka, zaila dela erraza izatea,
dena dela jolasa, dena dela jokoa.

Erantzun dizut: batzuetan oso urrun nagoela
nigandik,
ez dakidala nongoa naizen gaur,
bihar zer izan nintzen.

Esan didazu goxo daudela okaranak
baietz erantzun dizut nik.

TELEFONO DEIAK

Bluesak dira gure telefono deiak
«etxera sartzen ari naiz
oinetakoak kendu ditut».
Zuk hitz egiten duzun bitartean ez dut hotzik.
Telebista pizten dut mutu
berokia botatzen lurrera
Afganistango soldadu baten hilotza korridorean.
Ez larritzeko esaten didazu
guda gehiegi daudela zabalik
hemen eta munduan.

Hauts gehiegi hartu du etxeak
hatz-markak nonahi
beti dago gure espezieko norbait esna
horregatik naiz beldur.
Sukaldean eltzea jartzen dut urez
armairuak zabaltzen ditut banan-banan
bakarrik afalduko dut gaur ere.
Tomate bat hartu dut
erditik irekitzeko.

Odoletan hasi da aiztoa.

APNEA

Segundo bat
kloro usaina nire eskuetan
kalea igerileku bat da non
biluzik jantzita doazen oinezkoak
bi
sorosleak desagertu egin dira
gainean neraman xukaderarekin batera
bat-batean
hiru
lepoa mugitzea besterik ez dut arnasa hartzeko
urtu egin da paisaia
ez naiz pisu
lau
igeri noa kaletik
enbor bat bezala ibaian behera
inork ez du nire biluztasunean erreparatzen
bost
besoak mugitzen ditut
hankak tximistaz bete zaizkit
atzamarrak ura urratzen
sei

lepoa jiratzen dut berriz
ezker-eskuin
inora ez begiratzeko
zazpi
nire itzal horizontalarekin topo egin dut
ura belarrietan
korronteak narama
zortzi
nire biriketatik edaten dut
gutxi falta zait
muga igarotzeko
bederatzi
segundo bakar bat gehiago
neure kabuz
inoren laguntzarik barik
hondoratu nadin
hamar
eskua bat sentitu dut lepotik gora tiraka
gaur ez didate utziko
gaur ere ez
gaur ere ez

ASFALTO GOSEA

HEGAZKINEN HEGOAK

Ez igaro nire besoetatik haratago
diote hegazkinek.
Do not walk outside this area
diotsut nik ere,
ez dut salbamendu-txalekorik jesarleku azpian
ez oxigeno maskararik
arnasa osten didazunerako.
Do not walk outside this area
No pisar fuera de la línea
Leihatila honetatik zerua ikusten nuelakoan
gerrikorik gabe ibili naiz.
Aduana igarotzeko galdetegiak bete ditut:
Nondik zatoz? Nora zoaz?
Gaixotasun sintomarik igartzen al duzu?

Zurekin egiten dudan keinu bera
errepikatu dut automatikoki
check control-a igarotzeko.
Oinetakoak eta erlojua erantzi,
plastikozko ontzi batean nire ondasun guztiak utzi.
Igarriko al du eskanerrak

zenbat denbora dagoen erlojuaren barruan?,
zenbat kilometro nire oinetako parean?
Begirada garbitu behar izan dut kontroletik
igarotzeko,
izterrak, besoak... haztatu dizkidate,
aurpegia ez,
ez didazu sekula ukitzen.

Segurtasun zaindaria asaldatzeko beldur ez banintz
neure gorputza eskanerretik pasatzeko eskatuko
nioke,
luze, etzanda
zurekin bezala.

Herrialdetik irteteko zerga ordaindu dut.
Pasaportean zure zigilua daramat
betirako.

HONDEAMAKINAK

eraikuntza hotsa leiho itxietatik nire logelara sartzen
hondeamakinak lanean ari dira

zuhaixkez belarrez biluztu dute mendi hegala
harria bistaratu nahi dute lehendabizi lur gorria atera
langile azazkal beltzak eta izerdia
zure eskuarekin batera nire azalean
etxebizitzak eraikiko dituztela dio iragarki panelak
mendia besterik ez zegoen tokian
familia osoak sartuko dira zementuzko eraikinean
ondo zulatu behar da lurra dio obrako arduradunak
zulatu
egonkortu
zulatu
leihotik begira gu biok
langileen amen eskuak dirudite garabiek
bere seme-alaben sehaskak kulunkatzen
lur gorri arrea agerian
zementua botatzen hasiko dira laster

musukatu egiten nauzu
teilatu baten beharra omen du jende guztiak
laurogeita hamar metro karratu solairuko
planoen arabera
lur puska bati bizia ematen omen diote
horixe da eskaintza
horixe entzuten dut
zure hondeamakinak
nire haragia zulatzen duenean

CONVOI EXCEPTIONNEL

Convoi exceptionnel batekin
topo egin dut astean hirugarrenez.
Moilako harriak garraiatzen dituzten kamioiek,
alarma gorria piztuta,
uretan nekez urtuko diren azukre koxkorrak
karratuak trinkoak
daramatzate gainean.

Convoi exceptionnel irakurri dut
hirugarrenez autoan astean,
harriak errepidean
pisu geldo
euskarria eusten
moilara jaurtiko dituzten harri kiloak soinean.

Harri bloke horiek imajinatu ditut ondoren,
portuko moila eusten hazten
higaduren aurka
erresistentzia etsia eutsia.

Nire moilari begira jarri naiz halabeharrez,
ze itsasoren kontra ari ote dira
nire harri bloke hauek
guztiz higatzeko zenbat beharko ote dute.
Convoi exceptionnel bat behar dut
harriz mudatu nazaten.

ENBOR MOZTUAK

Autoa errepidearen alkitranean
kamioi baten ostean noa.
Enbor moztuak daramatza
ebakitako atzamarrak bezala
bata bestearen gainean.
Eta nik zure eskua dut min.

Zure eskuaren minez,
ondoko eserlekura luzatu dut neurea
ohi nuen legez zure belaunetan pausatzeko,
eta orduan hezurren hutsunea ukitu dudanean
basoko langileak sentitu ditut
aizkorakadaka.

Zureekin lotu ez ziren
nire atzamarrak doaz kamioian
eta orain ez dakit
nola ukituko zaitudan berriz.

AUTOBUSA HARTU BEHAR DUT

Gizon bat ikusi dut gaur hiltzen.

Sagarrak ekarri dizkit banketxera,
txikiak eta heldugabeak, hosto eta guzti.

«Badakit orduz aurretik nabilela» esan dit.
«Irekiko didazu atea? Presa daukat,
autobusa hartu behar dut medikuarengana joateko.
Joan den hilean atera ez nuen pentsioaren bila
nator».

Minutu bat erregutu diot,
ordenagailua martxan jartzeko,
kutxa gotorra zabaltzeko, alarmak kentzeko...
Zigarro beltza erre du bulego atarian.
Barrura etortzeko keinua egin diodanean
txapela kendu eta kea bota du sudurretik.

Ahotsaren lakarra garbituz txanponak eskatu dizkit
autobuserako, osteko txikitorako.

Eta esku hezurtsua luzatu du,
tabernan lagunei luzatzen dien bezala.

Nire atzamarrak bereekin estekatu direnean
gordetzen zuten bero apurrak ihes egin dio.
Gizonak badaki hiltzen ikusi dudala.

Eskua baztertu du, zakar
plastikozko poltsa zuria zabaldu
eta bost sagar atera ditu:
etxe ondoko sagardiak emanak,
heldugabeak gogorrak mailatuak.
«Hamaiketakoa egin dezazun» esan dit.
«Behar ditudanak baino gehiago ditut.
Esan dizut? Medikuarengana noa gaur ere».

Bost sagar garratz dauzkat: usteldu edo jan.

TRENA

Zikin daude kristalak
hildako euliak leihopean
gortinak dira nire eskuak
hormak zeharkatzen ditu
trenaren zaratak
barrerak jaitsi dira
autoak bidaztiak ertzeko guztiok gelditu gara
trena nola badoan begiratzearren
bizilagunak plastikozko loreak
jarri ditu leiho ondoan
garbi dago zerua
txoriak ere ez dira jada
argindar kableetan pausatzen
tren taupadak nire bularrean
requiem
nire hezurrek ez dute hitz egin nahi
berbak ez dira beti mapak
bideek edonora eta inora eraman zaitzakete
nik ere eutsi behar izan diot
errepideetako kono gorriak
botatzeko tentazioari

autodiziplina kontua
umetatik euspen-horma
izaten erakutsi digutenondako
ez zeharkatu
argi gorria
trena dator
heldu eskutik
hau da bidea
barrerak igotzen hasi dira
berriz hasi da dena
berriz hasi da dena amaitzen
dagoeneko ez naiz makurtu gabe
barrera azpitik kabitzen

TAXIA

Gelditzeko esan diot taxiari.

Aho bat bezala zabaldu da atea
arrain handiak txikia nola
irentsi nau.
Helbide bat eta kilometroak
besterik ez dut.

Eskerrak
urontzietan arnasa hartzen dakidan
aspaldi ikasi nuen
baleen eta erlojuen garaian.

Eskerrak
bizitzeko baimena eskatzeari utzi niola
ez hain aspaldi.
Ur berrien bila nabil orain
lur zaharrak utzita.

Berandu iritsiko naiz.
Leku gehiegi dago

leku gehiegi eta estutasuna.
Dena konpon daitekeela esaten dute
eta galdetzen dut zer den dena.

Arrainen arnasa nirea.

Gelditzeko esan diot taxiari. Barrutik.

Atea zabaldu da
urontziak gainez egin du
lurrean dantzan hasiaz batera
hil dira nire arrainak
urik gabe igeri egin nahi zuten
asmoak.

8F JESARLEKUAN

aulki bat izatera behartu naute
azafaten irribarreek hegaldia amaitu arte
beroa dut oinetan
burua leihatilara 90 gradu jiratu eta ohartu naiz
errepideak esaldi bihurriak dira zerutik irakurrita
hegazkinaren sabelean
hodeiek giza-gozokiak jaten dituzte

lotuta goaz airean hegan
beheko itsasoaren ispiluan
ilusio bat besterik ez gara
zeruan marraztu den kezko seinalea

hegan goaz lotuta hegan
maletekin batera utziko gaituzte
nothing to declare esango dugu aduanan
bitartean lotuta segitzeko
zerura bidean
loguraz
beroa sentitzen dut oinetan

ondoko andreak destainaz begiratu dit
ume negarra lau ilara aurrerago
eztulak
beroa
ez erre
lotu gerrikoa
azafata salbamendu txalekoa nola jantzi erakusten
ohartu naiz hegazkinak dagoeneko
itsasoan galdu duela bere itzala
bidaia on
bon voyage

AHANZTURA ETA GOSEA

Hegazkin bat aireratu da gaur nire gorputzetik.

Banekien berandu iritsi behar nuela.
Elurtua zegoen bidea,
oreinak odol tantak ziren errepidean,
talka egin nuen batekin.
Zuriegia zen bidea: zureegia.
Leunki talka, oreinaren dardararekin.
Gatza botatzen pasatu nuen negu osoa,
elurra kentzeko makinak bidali nituen bidera
azala bezala bistaratzeko asfaltoa.

Banekien berandu iritsi behar nuela.
Zauritutako animaliaren irudia atzeranzko ispiluan.
Azeleragailuari irmo zapaltzen nion,
hilotz batek adina pisu maletategian.
Gurpila beti leku berean jiraka,
gatza botatzen negu osoa
bidean zuri
eta hegazkina airean lurruntzen
ahotik ateratzen zitzaizkidan hodeien antzera.

Ahanztura eta gosea geratu dira orain nirekin.
Maletegian bi hilotz: oreina eta ni.

Hegazkin bat aireratu da gaur nire gorputzetik.
Banekien berandu iritsi behar nuela.

ELURRAREN ISILTASUNA

ZURIA, BIGUNA, BUSTIA

Nire memoria elurra bezalakoa da:
zuria, biguna, bustia;
gutxien espero dudanean jausten da
gutxien espero dudanean urtzen da.

Zaila egiten zait aitortzea
nik ere miazkatu ditudala nikotina zaporeko hormak,
ni ere izan naizela behi bat kanalean zabaldua,
inoiz belar printzak aurkitu ditudala pubisean.
Hala ere aratz dago nire birjinitate emozionala.
Ez du balio barkamena eskatzeak
norbere buruari eman ezean.

Nik ere irentsi ditut euliak,
biluzik ihes egin diet tigreei,
lokatzetan marraztu dut neure gorputza.
Eta hala ere nire memoria elurra bezalakoa da:
neguan erortzen da, noizbehinka, abisatu gabe.

Inoiz berokirik gabe harrapatu nau
larrua gorritzeraino,

harrapakin errazen antzera
oinatzak utzi izan ditut etxeraino.

Nire memoria elurra bezalakoa izatea
biziraupen kontua da,
aldian-aldian erori arren
hotz mantentzen delako beti.

DESERTUA

ez dut desertua aukeratu, Olga
ez dut haitzaren alde zailena hartu
asfalto gainean noa

ez dut basoa aukeratu, Olga
ez noa sasi gainean oinez
belar moztu berria nahi dut oinpean

ez dut itsasoa aukeratu, Olga
noizbehinka itsasertzean sartzen ditut oinak
hondar beroan arrastaka eroan
eta desagertuko den arrasto bat utzi

hondarra eta asfaltoa naiz, Olga
eta noizbait estali egingo naute
hondar eta asfalto gehiagorekin
belarra moztu berritan

ez dut desertua aukeratu, Olga
eta damu naiz

ERORTZEKO MODUAK

Erortzeko moduak daude:
goitik
behetik beherago
zutik edo alboetara.

Erortzeko moduak daude
erotzeko moduak dauden bezala.
Norbere burua samurki suntsitzeko moduak daude.
Badakizu zertaz ari naizen.

Esan bizitzen lagunduko diogula elkarri nolabait
hiltzen lagunduko diogun bezala.
Esan hau ez dela inoren beroa lapurtzea.

Esan ez gaudela
kalean ahaztu oinetakoak bezala
erortzeko zain
galderak edo betileak bezala
erortzeko zain
umeak edo txoriak bezala
erotzeko zain.

Denok ohartzen gara geure burua saltzen dugunean.

OINEN ARTEKO HUTSUNEA

Erortzean izan da
hegan egin dudan une bakarra
beherantz hegan.

Kitzikatzen nau lur hartzearen bertigo eta lilurak
segundoetako lotura ezak
amildegia naiz horrelakoetan.

Nire oinen arteko hutsunetik
mundu bat pasatzen da
inoiz zapalduko ez dudan mundu bat.

Errekasto bat ikusten dut batzuetan
eskua luzatzen dut atzamarrak bustitzeko
nire egarriak berreskuratzeko
itotakoen poltsikoak harriz arintzeko
umezaroa berriz edateko.

Ezin ordea eskuetan gorde.
Ez naiz gai

egonarria dabilen harri bihurtzeko.
Nire oinen arteko hutsunetik
mundu bat pasatzen da
inoiz zapalduko ez dudan mundu bat.

Jakin nahi nuke
ahul izateari utziko bagenio
ez genukeen maitatu beharrik izango.

Erortzean izan da
benetan hegan egin dudan une bakarra.

ERREKONOZIMENDU SAIOA

Hau ez da errekonozimendu saio bat
eta hala ere hotza dut haginetan.

Diotenez edozein unetan geldiaraz nazakete
edozein auzotan edozein atartetan.
Kalera irten eta hautsez busti naiz
nirekin noan bitartean
uko egiten diot neure buruari.

Pneumatiko zarata euripean.
Tren taupadak airean.
Goi-tentsio dorreak ostertzean.

Arrazan sinesten ez duen arraza batekoa naiz
denok gara larriki berdintsuak
horrek aztoratzen nau.
Eta hala ere taxidermista baten bila nabil
nigandik gelditzen zaidana gordetzeko.

Bakardade oro da berekoia.

Ez dut nahi ni ez naizen beste inorentzat.

Pneumatiko zarata ostertzean.
Tren taupadak euripean.
Goi-tentsio dorreak airean.

Hau ez da errekonozimendu saio bat
eta hala ere min honen kolore zehatzaren bila.
Ni ez beste hitzak eta pertsonak galtzen zaizkit.
Diotenez edozein lekutan geldiaraz nazakete.

AZKEN FINEAN

Azken finean gauza gutxi dira ezinbestekoak
abisatu gabe datorren euria bezala
espero ez duzun ur zikin hori
zure memoriaren zuloetatik sartzen.

Gauza gutxi direlako ezinbestekoak azken finean
ametsak ere aitzakia bat besterik ez
inoiz izango ez garen hori izango ez garela
onartzeko.

Ezinbestekoak gauza gutxi direlako azken finean
mina bezala bizirik gaudela oroitarazteko
ez direlako gauza bera mina eta samina
nahiz eta biek min eman.

Gauza gutxi dira azken finean ezinbestekoak
azalaren lehen mintzean gordetako beldurra bezala
begiak zabalik edukitzea
edo salbatuko garela pentsatzea.

INORK EZ DIGU ESATEN

Inork ez digu esaten
nola utzi gure gorputzak inoren esku
nola kendu ihintza belarrari
ze bizi daukan laburrak.
Inork ez digu esaten
ze altura duten olatuek ibaietan
nola begiratu ispiluan atzera.

Inork ez digu esaten
hiltegiak dauzkagula zain
kalea zeharkatu eta laugarren atean.
Inork ez digu esaten
galerak betetako hutsuneak direla
min egiten dutela hutsean ontziratutako maitasunek.

Inork ez digu esaten
nola izan gure amen ama
nola eutsi bizia eman zizuten hezurrei
hondarra eskuan bezala lurrera jausi ez daitezen.

Inork ez digu esaten

zer izan behar dugun orain
zenbat balio dugun bihar
noiz eroriko garen berriz.
Inork ez digu erakusten
zuloak eraikitzen.

INVENTARIUM

Plastikozko landareak eta isiltasuna
ureztatzen aritu naiz.
Desio zaharrak loratu zaizkit:
metal zaporea, ron usaina.

Azpituluetan bizi naiz
soluziorik ez duten ekuazio linealen bila:
euritu nazazu, zauritu, aritu.
Ez dakit zelan garbitu min hau,
amoniakoak oka eragiten dit.

Alferrik dut Gaussen metodoa,
inkognita larregi.
Uste dut oso ondo ulertzen dela
oso ondo azaltzen ez dakidana.

Belarraren dardara da nirea.
Motorra martxan geldi dagoen autoarena,
monoxido karbonoa naiz
arnastu nahi banauzu.

Des-sortu egiten dut,
desertu, des-urtu.
Plazerak galtzeak min ematen dit,
ohartzeak are gehiago.

EZ DA EZER

Ez da ezer gertatzen ari
aukera ez bada
aukera eta bere ateak.
Meteorologia tratatu bat egin nezake
leihotik begira
zebrabide hilak
bakarrik doazen aterkiak
putzuetan arimak.

Etxeko hoditerian igelak ditut
hutsik sabela eta koltxoia
bizkarrezurra arrainei bezala erauzi zidaten
eta hala ere eusten diot
ezer ez gertatze honi.

Ari dira aukerak.
Ari dira orduak orduak jaten.
Ari da herdoila, narriadura, ukabilak.
Ari da gatza.
Ari da haria.
Ari da harria.

Ari naiz ezarian.

Ez da ezer gertatzen ari
dena ari denean.

EZ DUT NAHI

Ez dut nahi
nire larruaren kopiarik egin
zakur bat bezala inoren hanketan lardaskatu
belaunak otzan miazkatu
isiltasuna kudeatu.

Ez dut nahi
Eva eta Adamen hortz ustelekin hozka egin
olagarroak harrien aurka astindu
neure ukondoak besarkatu
ez ditut nahi bi logela huts bere bi bakardadeekin.

Ez dut nahi
atzoko euririk gaur
olatuak baino beranduago iritsi
txoriak irakurri zeruan
putzuetatik edan.

Ez dut nahi
gaua alferrik esnatu
bihar beharko du esan

ezer gertatu ez balitz bezala jokatzera ohitu nire desira besterik ez izan.

GAME OVER

B-612 asteroidearen bila abiatu behar nuen nik ere
baina hemen jarraitzen dut oraindik.

Korrika joan izan naiz larrialdi irteeretara
zartatu egin zaizkit euspen-hormak
galdu egin ditut erabilera orriak
baina hemen jarraitzen dut oraindik.

Txatarraz bete zaizkit birikak
harren ordez balak aurkitu ditut sagarretan
bihotzen ordez haize-errotak
arnasa artifiziala behar dut nik ere.

Barra kode batekin irakurri naute
anforak hautsi zaizkit eskuetan
huts egin dit atrezzoak eta zaunka isiltasunak
eta hemen jarraitzen dut oraindik.

Ihes egiten saiatu naizenetan
nire musker eta tximeletek
atzetik segitu didate temati.

Animalia galduaren metafora naiz ni ere.

Horrelakoa da jokoa:
ez dago jarraitzea beste aukerarik.

BELAUNALDIA

Neuretik baino ez dakit
bi pauso atzerago noa beti kaletik
ez dut ezer harrapatu nahi
ez dut ezerk harrapa nazan nahi.

Mende oso bat daramat
arnasari eusten
erlojuak hazten
ez naizena irensten.

Ni jaio nintzen urtean
Rimbaudek Lizardiz galdetu zuen
euria egin zuen Etiopian
hondartzak bete egin ziren.

Artean gazteegia nintzen
alegia bihar alegia inoiz.
Artean aurretik nuen
mende oso bat bukatzen.

Orain esaten dut ments

orain esaten dut min.
Esan nahi nuke
hautsi sortu atera.

Bi mende erdik
ez dute mende oso bat osatzen.
Erdibidean bide erdian
erditu gintuzten.

Hemen gertatzen ari dena gara
eta ez dakit zer den.